



Andoaingo Udala

Maria Uriarte Zurikaray, Maider Lainez Lazcoz alkatea duen, Andoaingo Udaleko (Gipuzkoa) behin-behineko idazkaria naizenez.

ZIURTATZEN DUT, A.F.A.J. erregelamenduko 206. artikuluan aurreikusitako salbuespena aintzakotzat harturik, Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatetzak eskuordeturik, joan den 2023ko maiatzaren 12an egin zuen ohiko batzaraldian, eta beste zenbaiten artean, ondoko erabakia hartu zuela:

5.— La Salle Berrozperekin lankidetza hitzarmena onartzeko proposamena.

Ikusirik La Salle-Berrozpeko ziklo eta lan prestakuntzako ikasleen eguneroko praktikak balorean jartzeko aukera, soldadura eta kaldereritzako lanen bidez.

Ikusirik Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria lansaileko Teknikariak 2023ko apirilaren 3an egindako txostena.

Ikusirik udal kontuhartzaileak 2023ko apirilaren 18an egindako txostena azalduz aldeko kreditua dagoela aplikazioan.

Ikusirik, Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria Batzorde Irizpenemaileak 2023ko maiatzaren 10eko bileran emandako irizpena.

Guzti hau kontuan izanik, Tokiko Gobernu Batzarrak, Alkatetzak eskuordeturik eta aho batez, honako erabakia hartzen du:

1.- Onartzea Andoaingo Udala eta La Salle-Berrozperen artean proposatutako lankidetza hitzarmenaren sinadura, zeinak honako ezaugarriak izango dituen:

Xedea: Prestakuntza-zikloetako eta enplegurako prestakuntzako ikasleen praktiken balioa nabarmentzea soldadura eta galdaragintza-lanen bidez, tokiko hiri-altzari espezifikoei.

Dirulaguntza: 1.100 €.

Partida: 1.0200.481.326.20.01 (622 kontr.)

Indarraldia: 8 hilabete eta 7 egun.

2023/04/24tik - 2023/12/31ra.

2.- Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria lansaileko zinegotzi ahaldunari hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Hartutako erabakia La Salle-Berrozperi jakinaraztea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez.

4.- Akordio honen berri ematea Kontuhartzailera udal lansaileari.

Eta horrela jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan ziurtagiri hau eman dut, Andoainen sinadura datan.

Behin-behineko idazkaria



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKUb35eb47d-035d-4a48-b355-0da20698a63b**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**